

Udalaren opor programa

→ 2017 ←



Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala.

Egileak: Udaleko Hezkuntza Zerbitzua, Udaleko Kirol Zerbitzua, Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua, Udaleko Folklore Akademia, Luis Aramburu Udal Musika Eskola, Gazteria Zerbitzua, Udaleko Euskara Zerbitzua eta IGI-CEA.

Babeslea: Eusko Jaurlaritza:
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Argazkiak: La Debacle S.L., Ludoland eta Udaleko Sailak.

Diseinu grafikoa eta maketazioa: La Debacle S.L. (www.ladebacle.com)

Ilustrazioak: Karen Warner (www.illustrapow.com)

Imprimatzailea: Imprenta Sacal

L.G.: VI 154-2017

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza



Paper birziklatuan (%100) inprimatu da.
Impreso en papel 100% reciclado.

Aurkezpena

Aisia eta astialdia ezinbestekoak dira gizakiarentzat, ongizate emozionala sortzeaz gain, pertsona arteko harremanak garatzeko aukera ematen baitute eta inklusibotasuna sustatzen baitute. Azken batean, tresna bikainak dira pertsonen erabateko garapenerako eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Hori guztia kontuan hartuta eta inguruneak eta bereziki hiriak jolas-jarduerak garatzeko aukera aparta eskaintzen duela seguru gaudenez, 2017ko Opor Jarduerak argitalpena eskaintzen dizuegu.

2017ko ekainaren 26tik irailaren 1era bitartean garatuko diren udal-jardueren eskaintza biltzen du argitalpen horrek. Udaleko sailen artean koordinatutako eskaintza da, askotariko programak biltzen dituena, bai gaien aldetik (musika-jarduerak, ingurumena-ekin lotutakoak, kirol-jarduerak, etab.), bai pertsonen adinaren aldetik ere (3 urtetik 17ra bitartekoei zuzentzen zaie).

Aisia eta astialdiko jarduera-programa horien bidez, sormena, berdintasuna, gizalegea, bizikidetzeta, inklusibotasuna, dibertsitate, iraunkortasuna eta beste hainbat balio garatzeko aukera izango dute haurrek. Balio horiek dira, hain zuzen, gure hiria hiri hezitzaile gisa definitzen dutenak.

2017ko udan 11 programa eskaintzen dizkizugu 66 jarduera ezberdinekin, guztira 2.399 toki 3 eta 17 urte bitarteko laguentzat. Ekintzen programazioak aukera ezberdinak hautatzea errazten dizu eta eskabideak zein izen-emateak modu arinean sartzeko aukera ere eskaintzen dizugu.

Beraz, eskuetan duzun eskaintza hau haur eta gazteen ongizatea eta aberastasuna sustatzeko aukera aparta da, eta baita Vitoria-Gasteizen bizi garenon bizi-kalitatea areagotzeko baliabide ezin hobea ere. Ea baliagarri zaizuen!



Aurkibidea

Jardueraren arabera Jaiotza-urtearen arabera

Orr.

	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002	2001	2000	1999	1998	1997
5 INFORMAZIO OROKORRA																		
8 JOLAS-TXOKOAK																		
10 UDAKO LUDOTEKAK																		
12 UDALEKU MUSIKALAK muSika BAI! 2017																		
14 UDALEKU IREKIAK																		
16 INGURUMEN UDALEKUAK																		
18 GREEN SUMMER CAMP																		
20 ABENTURA UDALEKUA																		
22 UDAKO TXOKOKLUBA																		
24 JARDUERA NAUTIKOEN CAMPUSA																		
26 KANPAMENTUAK HONDARTZAN																		
28 UDABAND! UDAKO MUSIKA CAMPUSA																		
30 JARDUERA NAUTIKOAK: HASTAPEN IKASTAROAK																		
32 GURASO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO OPOR JARDUERAK																		
33 GURASO ELKARTEENTZAKO UDAL BALIABIDEAK																		
34 KRONOGRAMA																		

Informazio orokorra

Hona hemen Vitoria-Gasteizko Udalak 2017ko udarako antolatu dituen Opor Jardueri buruzko informazio orokorra. Txosten honetako ondorengo orrialdeetan, jarduera horietako bakoitzaren eduki espezifikoak zehaztu da.

1 2017KO OPOR-JARDUERAK

Udalaren Opor Jarduerak multzo bakar batean bildu dira lehen aldiz:

JOLAS TXOKOAK
UDALEKU IREKIAK
INGURUMEN UDALEKUAK
UDAKO LUDOTEKAK
ABENTURA UDALEKUA
UDAKO TXOKOKLUBA
MUSIKA UDALEKUAK ¡MÚSIKA BAI! 2017
GREEN SUMMER CAMP
KANPAMENTUAK HONDARTZAN
UDABAND! UDAKO MUSIKA CAMPUSA
JARDUERA NAUTIKOEN CAMPUSA

2017ko opor-jardueretan leku kopuruaren % 6 gordeko da hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzat. Era berean familia-unitatean premia sozialak edo genero-indarkeriarekin lotutako egoeraren bat duten pertsonen kasuan leku kopuruaren % 5 gordeko da.

Adinaren arabera egiten den eskaintzak baldintzatuko du eskatu daitekeen ekintzen kopurua. Aukera bakoitza jarduera bati dagokio; horietako jarduera bakoitzak ezaugarri zehatzak ditu (garatuko den lekua eta egunak, ordutegia, barne hartzen dituen zerbitzuak...), eta kode batez identifikatuko da.

Programatutako jarduerak bertan behera utzi ahal izango ditu udalak, eskariak jarduera horiek egitea baldintzatzen badu edota beste edozein gorabeherak jarduerak galarazi edo ez egitea aholkatzen badu.

2 EGUTEGIA

ESKAERA: apirilaren 3tik 21era.

ZOKETA: maiatzaren 5ean.

FORMALIZAZIOA: maiatzaren 5etik (zozketako emaitzak argitaratu ondoren) maiatzaren 12ra.

LEKU LIBREAK ARGITARATZEKO EGUNA: maiatzaren 15a.

LEKU LIBREEN FORMALIZAZIOA: maiatzaren 18an hasiko da eta ekainaren 4an amaituko da.

ESKAERA EGITEKO FASEA

- Zozketa egin aurretik opor-jardueren eskaera egiten den epea da.
- Jarduera berean elkarrekin parte hartu nahi dutenei aukera hori errazteko, eskaerak taldeka egin ahal izango dira, eta gehenez hiru lagunekoak izango dira talde horiek; horrela, ondoz ondoko zenbakiak emango zaizkie zozketarako. Dena den, sistema horrek ez du bermatzen taldeko pertsona guztiei lekua esleituko zaienik.
- Oporretarako lekuaren eskaera honako prozedura hauen bidez egin daiteke:
 - Herritarren arretarako bulegoak (8:30etik 20:00etara, astelehenetik ostiralera).
 - Herritarrentzako informazio-telefonoa: 010 edo 945 161 100.
 - Udal webgunearen Egoitza Elektronikoaren bidez www.vitoria-gasteiz.org [Herritarren Udal Txartela (HUT) erabiltzea, gomendagarria da.]

Herritarren Udal Txartela (HUT) edo ziurtagiri digitaleko txartel bat (NAN elektronikoa, adibidez) erabiliz gero, udal webgunearen bidez egiten den izen-ematearen prozesua arinduko da. Hain zuzen, online aldaketak egiteko modu bakarra da.

- Ezinbestekoa izango da agiriak aurkeztea hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen kasuan. Eskaera egiterakoan, Foru Aldundiak edo eskumena duten beste entitate batzuek (ikastetxeak, premia bereziak dituztenen elkarteak...) egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da, non behar duten laguntza zehaztuko den.
- Udaband! Udako Musika Campusean parte hartzen dutenek, musika-eskolako II.4 Maila edo kontserbatorioko oinarrizko maila izan behar dute. Eskabidea egitean aurkeztu behar da musika-eskolan edo kontserbatorioan egindako ikasketen ziurtagiria. Ziurtagiri hau, Herritarren Arretarako bulegoan entrega daiteke edo eplatas@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoaren bidez apirilaren 21ean baino lehen.
- Fasea amaitzen denean, eskatzaileak agiri bat jasoko du. Agirian jasota daude bakoitzaren datu pertsonalak, eskatu duen jarduera, eskaeraren erreferentzia-zenbakia, zozketarako zenbakia eta beste egoera berezi batzuk (hezkuntza-premia bereziak, gizarte-zerbitzuetako kasuak...).
- Fase horretan, aurkeztutako eskaerak kontsultatu edo aldatu ahal izango dira. Horretarako, eskaeraren erreferentzia-zenbakia eta zozketarako zenbakia eskatuko dira.
- Eskaera eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko prozedura berdina erabiliko da, bai webgunearen bidez, bai aurrez aurre.

FORMALIZAZIO-FASEA

- Zozketan lortutako lekuari dagozkion datuak betetzeko eta dagokion zenbatekoa ordaintzeko epea da. Formalizazioaren bidez, udalak opor-programetako jarduerak garatzeko ezarri dituen baldintzak onartzen dira inplizituki.
- Lortutako lekuaren formalizazioa honako prozedura hauen bidez egin daiteke:
 - Herritarren arretarako bulegoak (8:30etik 20:00etara, astelehenetik ostiralera).
 - Herritarrentzako informazio-telefonoa: 010 edo 945 161 100.
 - Udal webgunearen Egoitza Elektronikoaren bidez www.vitoria-gasteiz.org [Herritarren Udal Txartela (HUT) erabiltzea, gomendagarria da.]
- Lekua lortu eta osasun-izaerako gorabehera bat duten pertsonen kasuan. Dagokien sendagilearen egiaztagiria aurkeztu behar dute. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko aurrez jakinarazi ez diren osasun-kasuak.
- Lekua behin betiko lortzeko, ezinbestekoa da adierazitako agiriak aurkeztea eta dagokion zenbatekoa ordaintzea.
- Dagokion zenbatekoa ordaintzeko epea maiatzaren 12an, 23:59an, amaitzen da.
- Lortutako lekua formalizatu ondoren aldaketaren bat eskatu nahi bada, herritarren arretarako bulegoetan aurkeztu beharko da eskaria.

LEKU LIBREEN FASEA

- Hutsik gelditu diren lekuak eskatu eta formalizatzen diren epea.
- Aurreko faseetan parte hartu duten pertsonak nahiz parte hartu ez dutenek eska ditzakete hutsik gelditu diren lekuak. Leku libre horiek eskatzeko eta formalizatzeko epea ekainaren 4an amaituko da.
- Leku libreen fasean, opor-programarako lekuaren eskaera honako prozedura hauen bidez egin daiteke:
 - Herritarren arretarako bulegoak (8:30etik 20:00etara, astelehenetik ostiralera).
 - Herritarrentzako informazio-telefonoa: 010 edo 945 161 100.
 - Udal webgunearen Egoitza Elektronikoaren bidez www.vitoria-gasteiz.org [Herritarren Udal Txartela (HUT) erabiltzea, gomendagarria da.]
- Ezinbestekoa izango da agiriak aurkeztea ondoko kasu hauetan:
 - Aurtengo prozesuan opor-jarduera batean parte hartzeko lekua lehenengo aldiz eskatu duten eta **hezkuntza-premia bereziak** dituzten pertsonen kasuan.
 - **Osasun-izaerako gorabeheraren bat** duten pertsonen kasuan: bai eskaera-fasean parte hartu bazuten, bai lehenengo aldiz aurtengo prozesuan parte hartu nahi badute.
 - 2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso eta lehenengo aldiz eskatzen dutenak aurtengo prozesuan opor jarduera batean parte hartzeko lekua.
 - Aurtengo prozesuan, **Udaband! Udako Musika Campusean** parte hartzeko lekua lehenengo aldiz eskatzen dutenek. Kasu honetan, Herritarren Arretarako Bulegoetan entrega daiteke edo eplatas@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoaren bidez.
- Fase honetan, eskatutako lekuari dagokion zenbatekoa eskaera aurkeztu eta formalizatu ondorengo bi eguneko (astegunak) epean **ordainduko** da. Epea bukatutakoan ordaindu ez bada, lekua berriro ere hutsik dagoela joko da.
- Lekua behin betiko lortzeko, ezinbestekoa da adierazitako agiriak aurkeztea eta dagokion zenbatekoa ordaintzea.
- **Leku libreak helduerako ordenaren arabera esleituko dira.**

Gomendagarria da webgunera aktibatutako HTU baten bidez konektatzea leku libreen epean. Izan ere, eskatzailea identifikatuta dago berak nahi dituen lekuak hautatu baino lehen; hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen kasuen, gainera, ez da dokumentazio berririk erantsi behar, zozketaren epean parte hartu bazuten.

4

TARIFAK ETA DOKUMENTAZIOA

TARIFAK

- Opor-jarduera bakoitzari buruzko informazio espezifikoa zehaztu da bakoitzari dagokion prezioa.
- Ezarritako kuoten gaineko hobariak eskaintzen dituzten baldintza bereziak ere badaude. Horiei buruzko informazioa opor-jarduera bakoitzari buruzko informazio espezifikoa jaso da.

DOKUMENTAZIOA

- Opor-jardueretarako lekua lortu duen pertsonak egoera bereziren bat badu, hori egiaztatuko duen informazioa edota agiria eska diezaioke udalak. Oro har, jarduerak hasi aurretik eskatuko du agiria.
- Eskatutako agiriak faltsutzeak edo ez aurkezteak lortutako lekua galtzea ekarriko du.
- Jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk ere eska ditzake udalak (argazkiak, higiene pertsonaleko tresnak, bainujantziak, osasun-txartela, etab.).

» HARTZAILEAK

2011n, 2012an edo
2013an jaiotako haurrak.

» BALIOAK

Ekitatea eta inklusioa.

» HELBURUAK

- Haurren garapen pertsonala eta soziala bultzatzea.
- Ekitate eta inklusio balioen transmisioa sustatzea.
- Aisian eta astialdian heziketarekin eta jolasarekin lotutako alderdiak sustatzea.

Jolas Txokoak

Jolas Txokoak astialdirako heziketa-zerbitzuak dira. Eduki nagusiak jolasa, ondo pasatzeko jarduerak, txangoak eta hiriko zenbait lekutara egingo diren bisitak dira.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK


PREZIOA:

Uztailaren 3tik 14ra		Uztailaren 17tik 28ra
JANTOKIRIK GABE	JANTOKIAREKIN	JANTOKIRIK GABE
52,70 €	86,50 €	47,45 €

2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka eskuratu duenak (2016ko irailaren 28ko Agindua), ezarritako prezioaren % 50eko hobaria izango du (ez dira aintzat hartuko *Testuliburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren* barruko laguntzak). Formalizazioaren fasean (maiatzaren 5etik 12ra) ez da egoera horren egiaztagiririk erakutsi beharrik izango, eskaera egiteko fasea amaitzen denean (apirilaren 3tik 21era) Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko baitio udalari eskaera egin dutenek beka duten edo ez.

INFORMAZIO-ORRIA: www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

Web-orrian, jarduera honetan parte hartzeko beharrezkoak diren argibideei buruzko informazio-orria duzue eskura.





ANTOLAMENDUA

LEKUA, EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA:

JANTOKIRIK GABE

ORDUTEGIA: 09:15etik 13:15era, astelehenetik ostiralera.

KODEA LEKUA

KODEA	LEKUA	TOKI KOPURUA	
		Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 28ra
01001	CEIP Ibaiondo HLHI Tarragona kalea 9.	60	-
01002	CEIP Ibaiondo HLHI Tarragona kalea 9.	-	60
01003	CEIP Odon de Apraiz HLHI Behenafarroa kalea z.g.	60	-
01004	CEIP Odon de Apraiz HLHI Behenafarroa kalea z.g.	-	30
01005	CPI Sansomendi IPI Paula Montal kalea z.g. (Hiru hizkuntzatan)*	30	-
01006	CEIP Zabalgana HLHI Nazio Batuen hiribidea 10.	50	-
01007	CEIP Zabalgana HLHI Nazio Batuen hiribidea 10.	-	30

* Leku horretan, Jolas Txokoa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango da.

JANTOKIAREKIN

ORDUTEGIA: 09:15etik 15:15era, astelehenetik ostiralera.

KODEA LEKUA

KODEA	LEKUA	TOKI KOPURUA
		Uztailaren 3tik 14ra
01008	CEIP Judimendi HLHI Judimendi hiribidea 15 (Hiru hizkuntzatan)*	30
01009	CEIP Landazuri HLHI Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea 5. (Hiru hizkuntzatan)*	30

* Leku hauetan Jolas Txokoa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango da.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 380.

HIZKUNTZA: euskaraz, bi hizkuntzatan eta hiru hizkuntzatan (azken aukera hori tauletan adierazi den leku horietan soilik). Aukeratutako hizkuntzen arabera taldekatuko dira haurrak, baina, ezinezkoa bada, gehienek eskatutakoa hartuko da aintzat, hiru hizkuntzatan egiten diren Jolas Txokoetan izan ezik; horietan, denek oro har hiru hizkuntzak erabiliko dituzte, ez baita horietako bakarra edo bi aukeratzetik izango.

ANTOLATZAILEA

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua.

Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo 945 16 11 00

Web:

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

LAGUNTZAILEAK

Ikastetxeak



» HARTZAILEAK

2008tik eta 2012ra bitartean jaiotako umeak udako ludoteken programan eta 2013tik eta 2014ra bitartean jaiotako umeak udako Txiki - Ludoteka programan.

» BALIOAK

Bizi-kalitatea, sormena eta identitatea.

» HELBURUAK

- Udan zehar, aisialdirako aukera bat eskaintzea, non jolasa eta kultura uztartzen diren, eta horren bitartez, gure umei bizitzeko ohitura osasungarriak hartzen laguntzea.
- Euskara transmisio-hizkuntza izatea eremu ez formalean.
- Gurasoei edota aitona-amonei begira ere, ikasturtea amaitzen denean, lana eta bizitza uztartzeko beharrei erantzutea.



Udako Ludotekak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ludoteka Sarekook aukera eskaintzen dizuegu opor garaian ondo pasatzeko. Gure helburu nagusia honako hau da: gure seme-alabek ikas dezaten aisialdiaz modu osasungarrian, jolasean gozatzen eta sormena lantzen; eta hori guztia kontuan izanik jolasa jarduera askotako ardatz nagusia dela.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA UDAKO LUDOTEKEN PROGRAMAN:

BAZKIDEEK	EZ BAZKIDEEK
16,00 €	26,00 €

PREZIOA UDAKO TXIKI-LUDOTEKA PROGRAMAN:

BAZKIDEEK	EZ BAZKIDEEK
12,00 €	19,50 €

Askaria ez dago prezioaren barnean.

PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA UDAKO LUDOTEKEN PROGRAMAN: gehienez **420**.

PARTE HARTZAILEEN KOPURUA UDAKO TXIKI-LUDOTEKA PROGRAMAN: **15**.

TOPALEKUA: gizarte etxeko ludotekan.

HIZKUNTZA: euskara.

Ludoteka Sareak familiei gutun bat bidaliko die **jarduera programaren berri** eta jarduera horietako behar diren gauzen berri emateko.



ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

TOKI KOPURUA

KODEA	LEKUA	Ekainaren 26tik 30era	Uztailaren 3tik 7ra	Uztailaren 10etik 14ra
01010	ABETXUKU	-	-	20
01011	ALDABE	20	-	-
01012		-	20	-
01013	ARANA	-	-	20
01014	ARRIAGA	20	-	-
01015		-	20	-
01016	ARIZNABARRA	-	20	-
01017	LANDATXO	-	-	20
01018	PILAR	20	-	-
01019		-	20	-
01020	HEGOALDE	20	-	-
01021		-	20	-
01022	IBAIONDO	20	-	-
01023		-	20	-
01024	IPARRALDE	20	-	-
01025		-	20	-
01026	JUDIMENDI	20	-	-
01027	LAKUA	20	-	-
01028		-	20	-
01029	SALBURUA	20	-	-
01030	ARIZNABARRA UDAKO TXIKI - LUDOTEKA	-	20	-
01031		15	-	-

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Elkar ezagutzeko jolasak eta collage	Ipuinak eta elkar jolasak	Esku lanak eta ur jolasak	Txangoa parkera eta pista jolasak	Mozorroak, dantzak eta abestiak

OHARRA: jarduerak aldaketaren bat izan dezakete antolatzaileen beharren arabera.

ORDUTEGIA:

09:00etatik 13:00etara **udako ludoteken** programan.

10:00etatik 13:00etara **udako Txiki-Ludoteka** programan.

ANTOLATZAILEA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ludoteka Sarea.

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila.

Telefona: 010 edo 945 16 11 00

Web:

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

Udaleku Musikalak

¡muSiKa, BAI! 2017

» HARTZAILEAK

2005 eta 2012 bitartean jaioak.

» BALIOAK

Sormena, Gizon eta emakumeen berdintasuna, Identitatea, Inklusioa, Parte-hartzea, Gizalegea, Erantzukizuna eta Elkartasuna.

» HELBURUAK

- Musika, dantza eta kantuaren bidez umeen sentiberatasun artistikoa lantzea, asmo teorikorik gabe.
- Oporretan musikarekiko zaletasuna pizteko lantegia sortzea.
- Udalekua bukatzen den egunerako musika ikuskizun bat prestatzea.

Jolasaren bidez musika, kantua eta dantza ezagutzea da helburua, musika sentitzen, ezagutzen, bizitzen eta interpretatzen ikastea metodo dibertigarri eta partaidetzazkoa baliatuz, musika programazio oso baten barruan.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA:

09:00ETATIK 13:00ETARA	09:00ETATIK 14:00ETARA
136,40 €	169,20 €

Seme edo alaba bat baino gehiago matrikulatzen duten familiek % 20ko hobaria izango dute bigarren matrikularen prezioan, eta % 30ekoa hirugarrenean. Plaza edo onarpena baieztatu ondoren, ordainketa egingo da (Deskonturako baldintzak, Formalizazio atalean kontsultatu). Anai-arreben hobaria izateko, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan ordainketa egin behar da, famili liburua aurkeztuz.

2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka eskuratu duenak, ezarritako prezioaren % 50eko hobaria izango du (ez da aintzat hartuko *Testuliburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren* barruko laguntzak). Formalizazioaren fasean (maiatzaren 5etik 12ra), ez da egoera horren egiaztagiririk erakutsi beharrik izango, eskaera egiteko fasea amaitzen denean (apirilaren 3tik 21era) Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko baitio udalari eskaera egin dutenek beka duten edo ez. Deskontu honek ezin izango da erabili lehen esandako anai-arreben deskontuarekin batera.





ANTOLAMENDUA

KODEA	DATA	ORDUTEGIA	LEKUA
01032	2017/06/26-2017/07/07	9:00-13:00	Musika Etxea
01033	2017/06/26-2017/07/07	9:00-14:00	Musika Etxea
01034	2017/06/26-2017/07/07	9:00-13:00	Luis Aramburu
01035	2017/06/26-2017/07/07	9:00-14:00	Luis Aramburu
01036	2017/07/10-2017/07/21	9:00-13:00	Musika Etxea
01037	2017/07/10-2017/07/21	9:00-14:00	Musika Etxea
01038	2017/07/10-2017/07/21	9:00-13:00	Luis Aramburu
01039	2017/07/10-2017/07/21	9:00-14:00	Luis Aramburu

EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 480 (120 hamabostaldi eta zentro bakoitzeko).

HIZKUNTZA: ele bietan.



ANTOLATZAILEA

Udal Folklore Akademia
Kultura, Hezkuntza eta
Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo
945 16 26 02

Posta elektronikoa:
gufa@vitoria-gasteiz.org

» HARTZAILEAK

2008an, 2009an edo
2010ean jaiotako haurrak.

» BALIOAK

Ekitatea eta inklusioa.

» HELBURUAK

- Haurren garapen pertsonala eta soziala bultzatzea.
- Ekitate eta inklusio balioen transmisioa sustatzea.
- Aisian eta astialdian heziketarekin eta jolasarekin lotutako alderdiak sustatzea.

Udaleku Irekiak

Udaleku Irekiak astialdirako heziketa-zerbitzuak dira.

Eduki nagusiak aire zabaleko jolasak, ondo pasatzeko jarduerak, lantegiak, txangoak eta zenbait leku eta zerbitzutara egingo diren bisitak dira.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA:

Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 28ra
96,50 €	86,85 €

2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka esku-ratu duenak (2016ko irailaren 28ko Agindua), ezarritako prezioaren % 50eko hobaria izango du (ez dira aintzat hartuko *Testuliburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitati-boki erabiltzeko programaren barruko laguntzak*). Formalizazioaren fasean (maiatzaren 5etik 12ra), ez da egoera horren egiaztagiririk erakutsi beharrik izango, eskaera egiteko fasea amaitzen denean (apirilaren 3tik 21era) Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko baitio udalari eskaera egin dutenek beka duten edo ez.

INFORMAZIO-ORRIA: www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

Web-orrian, jarduera honetan parte hartzeko beharrezkoak diren argibideei buruzko informazio-orria duzue eskura.





ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA LEKUA

01040	CEIP Ibaiondo HLHI Tarragona kalea 9
01041	CEIP Ibaiondo HLHI Tarragona kalea 9
01042	CEIP Zabalgana HLHI Nazio Batuen hiribidea 10 (Hiru hizkuntzatan)*
01043	Gamarrako parkea Autobus-zerbitzua, honako geraldaldi hauekin: Legutianoko Atea (Iparralde Gizarte Etxea), Gasteiz hiribidea (Epaitegiak)
01044	Gamarrako parkea Autobus-zerbitzua, honako geraldaldi hauekin: Legutianoko Atea (Iparralde Gizarte Etxea), Gasteiz hiribidea (Epaitegiak)

TOKI KOPURUA

Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 28ra
60	-
-	30
40	-
90	-
-	90

* Leku horretan, udalekua euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango da.

ORDUTEGIA: 09:30etik 16:30era, astelehenetik ostiralera, bazkaria barne.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 310.

GARRAIOA: Gamarrako udalekuan parte-hartzaile orok autobusa erabili beharko du nahitaez (izena ematerakoan aukeratutako geltokia erabiliko da beti). Inork ezingo ditu parte-hartzaileak Gamarrako parkera eraman edo bertatik jaso.

HIZKUNTZA: euskaraz, bi hizkuntzatan eta hiru hizkuntzatan (azken aukera hori tauletan adierazi den leku horietan soilik). Aukeratutako hizkuntzen arabera taldekatuko dira haurrak, baina, ezinezkoa bada, gehienek eskatutakoa hartuko da aintzat, hiru hizkuntzatan egiten diren Udaleku Irekietan izan ezik; horietan, denek oro har hiru hizkuntzak erabiliko dituzte, ez baita horietako bakarra edo bi aukeratzetik izango.



ANTOLATZAILEA

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua.

Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo
945 16 11 00

Web:

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

LAGUNTZAILEAK

Ikastetxeak

» HARTZAILEAK

2005ean, 2006an edo
2007an jaiotako haurrak.

» BALIOAK

Bizi-kalitatea,
erantzukizuna eta
iraunkortasuna.

» HELBURUAK

- Ingurumenarekin lotuta dauden gure hiriko espazioak eta baliabideak ezagutzea.
- Biodibertsitatearekiko errespetuzko jarrerak bultzatzea.
- Ingurune naturalarekiko sentiberatasuna eta ingurune natural hori errespetatu eta zaintzearen aldeko jarrerak sustatzea.
- Aisian eta astialdian heziketarekin eta jolasarekin lotutako alderdiak sustatzea.

Ingurumen- Udalekuak

Bizi abentura, gozatu Vitoria-Gasteizko eta Arabako naturaguneez, eta sustatu berorien ezagutza. Salburuko hezeguneetan, Atarian, gure ibaiertzetan eta babestutako guneeetan garatzen ditugu jarduerak.

Hauek dira proposamen nagusiak: eko-lantegiak, txangoak, bisitak eta jolas-jarduerak.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA:


Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 28ra
117,00 €	105,30 €

2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlearitzaren beka eskuratu duenak (2016ko irailaren 28ko Agindua), ezarritako prezioaren % 50eko hobaria izango du (ez dira aintzat hartuko *Testuliburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren barruko laguntzak*). Formalizazioaren fasean (maiatzaren 5etik 12ra), ez da egoera horren egiaztagiririk erakutsi beharrik izango, eskaera egiteko fasea amaitzen denean (apirilaren 3tik 21era) Eusko Jaurlearitzak jakinaraziko baitio udalari eskaera egin dutenek beka duten edo ez.

INFORMAZIO-ORRIA: www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

Web-orrian, jarduera honetan parte hartzeko beharrezkoak diren argibideei buruzko informazio-orria duzue eskura.





ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA ERREFERENTZIAZKO LEKUA

KODEA	ERREFERENTZIAZKO LEKUA	TOKI KOPURUA	
		Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 28ra
01045	CEIP Salburua HLHI Paris hiribidea 2 Autobus-zerbitzua, honako geltoki hauetan: Honduras kalea 12, Jacinto Benavente kalea 13 eta CEIP Salburua HLHI(n) bertan	40	-
01046	CEIP San Ignacio HLHI Iturritxu kalea z.g. Autobus-zerbitzua, honako geltoki hauetan: Gasteiz hiribidea-Bastiturri, Wellingtono Dukea (Eusko Jaurlaritza) eta CEIP San Ignacio HLHI(n) bertan	40	-
01047	CEIP San Ignacio HLHI Iturritxu kalea z.g. Autobus-zerbitzua, honako geltoki hauetan: Gasteiz hiribidea-Bastiturri, Wellingtono Dukea (Eusko Jaurlaritza) eta CEIP San Ignacio HLHI(n) bertan	-	40

BESTE URTEETAN EGINDAKO JARDUEREN TAULA, ORIENTABIDE GISA:

Aurtengo jarduerak interesatuei jakinaraziko zaizkie udalekua hasi aurretik.

INGURUMEN-UDALEKUAK

1. eguna	2. eguna	3. eguna	4. eguna	5. eguna
Ezagutza-jolasak eta taldeak osatzea.	ATARI Ara bisita. Hegaztien behatokia.	Mendi-ibilvia Armentia-Ezkibel.	Jolas ekologikoak.	Urkiolako parkera irteera.
6. eguna	7. eguna	8. eguna	9. eguna	10. eguna
Txandakako lantegiak Olinpiada Bereziak.	Zadorrako eta Alegriako ibaiertzetara irteerak. Bainua Gamarran.	ATARI Ara bisita. Hezeguneak.	Garaioara irteera. Ibilaldia bizikletaz. Bainua urtegian.	IGIra bisita. Olarizu mendia. Gasteizko mendiak.

ORDUTEGIA: 09:30etik 16:30era, astelehenetik ostiralera, bazkaria barne.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 120.

GARRAIOA: parte-hartzaile bakoitzak geltoki bat soilik aukeratu ahal izango du eta geltoki hori erabiliko du beti.

HIZKUNTZA: euskaraz edo ele bietan. Haurrak aukeratutako hizkuntzaren arabera taldekatuko dira. Ezinezkoa bada, gehienek aukeratutakoa hartuko da kontuan.

ANTOLATZAILEA

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua.

Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo 945 16 11 00

Web:

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

LAGUNTZAILEAK

Ikastetxeak



Green Summer Camp

» HARTZAILEAK

ATARIA 1: 2005etik 2007ra bitartean jaiotako neska-mutilak.

ATARIA 2: 2008tik 2010era bitartean jaiotako neska-mutilak.

» BALIOAK

Begirunea eta Parte-hartzea.

» HELBURUAK

- Natura zaindu eta errespetatzearekin lotutako balioak zabaltzea.
- Talde jarduerak eta parte hartzaileen garapen pertsonala sustatzea.
- Eleaniztasunaren bitartez esperientzia berriak jasotzeko aukera erraztea.

Green Summer Camp udalekuak aisialdirako zientifiko-teknikoa jarduera da.

Gazteenei Salburuko hezeguneen garrantzia ezagutaraztea da programaren xedea, Eratzun Berdeko dibertsitate biologiko handiena bertan biltzen baita. Jarduerak jolastuz ikasteko diseinatu dira, parte hartzaileek era atseginean uler dezaten Salburua kontserbatzeko lana zertan den eta, aldi berean, natur baliabideen garrantzia aintzat hartzen eta ingurumenarekin arduraz jokatzeko ikas dezaten.





PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA: 117,00 €

ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA	ERREFERENTZIAZKO LEKUA	TOKI KOPURUA	EGUNAK
		Uztailaren 3tik 14ra	Uztailaren 17tik 31era
01048	Ataria 1	25	-
01049	Ataria 2	25	-
01050	Ataria 1	-	25
01051	Ataria 2	-	25

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, 09:30etik 17:00etara, bazkaria barne.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: gehienez 100 (50 hamabostaldi bakoitzean).

GARRAIOA: udaleku honek garraio-zerbitzua izango du; geltokiak: **L2 Intermodal eta L3 Herrandarrak 36**. Parte hartzaile orok erabili beharko dute garraioa nahitaez. Ezin du umea nork bere kabuz eraman jarduera hasteko orduan, ez eta jaso jardueraren bukaeran ere. Izena ematean aukeratutako geltokia erabili beharko dute beti.

HIZKUNTZA: hiru eleduna.



ANTOLATZAILEA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia-CEA.

Telefona: 010 edo 945 16 26 96

Web: www.cea.vitoria-gasteiz.org



» HARTZAILEAK

2004tik eta 2007ra bitartean jaiotako umeak.

» BALIOAK

Bizi-kalitatea, sormena eta elkartasuna.

» HELBURUAK

- Parekoen arteko harremanak landu eta sustatzea, inguru ludiko eta dibertigarri batean.
- Gure hiriko eta inguruko eremuak eta baliabideak ezagutzea.
- Ohitura osasungarriak bultzatzea.
- Udan zehar, aisialdirako aukera diferente bat eskaintzea.
- Euskara transmisio-hizkuntza izatea eremu ez formalean.

Abentura Udalekua

Aurtengo oporretan, udaleku diferentea eta zirrargarria nahi al duzu? Hona hemen zure aukera: abentura udalekua.

Abentura udalekuak astebete irauten du aukera-sorta eskainiz eta abentura eta dibertimendua uztartzen dira: txangoak, orientazioa, mendi - ibilaldiak, jolasak, lantegiak eta abar eta abar.

Ausartu zaitetz parte hartzera eta eman ezazu aisialdia era osasungarrian eta dibertigarrian. Eta gainera, plana borobiltzeko, lagun berriak ezagutuko dituzu.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA:

BAZKIDEEK	EZ BAZKIDEEK
29,20 €	47,45 €

Bazkaria EZ dago prezioaren barnean.





ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA	UZTAILAK 10	UZTAILAK 11	UZTAILAK 12	UZTAILAK 13	UZTAILAK 14
01052	Orientazioa Garaion	Zuhaitzen arteko ibilaldia eta arku tiroa	Kirolak nahasian eta bainuak hartzea Gamarran	Vasco-Navarroko bide berdea bizikletaz	Mendi-ibiliak, P.R. Gi-158ren bidez, Oriotik Zarautzera eta hondartzako jolasak
	UZTAILAK 17	UZTAILAK 18	UZTAILAK 19	UZTAILAK 20	UZTAILAK 21
01053	Orientazioa Garaion	Zuhaitzen arteko ibilaldia eta arku tiroa	Kirolak nahasian eta bainuak hartzea Gamarran	Vasco-Navarroko bide berdea bizikletaz	Mendi-ibiliak, P.R. Gi-158ren bidez, Oriotik Zarautzera eta hondartzako jolasak

OHARRA: jarduerak aldatetaren bat izan dezakete antolatzaileen beharren arabera.

ORDUTEGIA: 09:00etatik 16:00etara, astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 17:30era ostiraletan.

PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: 90 (astero 45).

GARRAIOA: udalekuek garraio zerbitzua izango dute. Topalekua **Arriaga parkeko aparkalekuan** (Forondako Atea, 2).

HIZKUNTZA: euskera.

Aldez aurretik, bilerak egingo dira ezaugarrien eta beharren berri emateko. Bilera hauen ordutegia eta data:

Uztailaren 5ean, 18:30-19:00 (1. astekoak) eta 19:15-19:45 (2. astekoak) El Pilarreko gizarte etxeako askotarako aretoan.



ANTOLATZAILEA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ludoklub Sarea.

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila.

Telefona: 010 edo 945 16 11 00

Web: www.vitoria-gasteiz.org



» HARTZAILEAK

2004tik eta 2007ra bitartean jaiotako umeak.

» BALIOAK

Bizi-kalitatea, sormena eta elkartasuna.

» HELBURUAK

- Parekoen arteko harremanak landu eta sustatzea, inguru ludiko eta dibertigarri batean.
- Gure hiriko eta inguruko eremuak eta balia bideak ezagutzea.
- Ohitura osasungarriak bultzatzea.
- Udan zehar, aisialdirako aukera diferente bat eskaintzea.
- Euskara transmisio-hizkuntza izatea eremu ez formalean.

Udako Txokocluba


Vitoria-Gasteizko Udalaren Ludoklub Saretik aukera eskaintzen dizugu opor dibertigarriak izateko hurrengo bitartez: kirol jolasak, eskulanak, lehiaketak, txangoak eta abar. Eta gainera plana borobiltzeko lagun berriak egingo dituzu eta ikasiko duzu aisialdiaz gozatzeko modu osasungarriari, jolasean eta sormena lantzen.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA:

BAZKIDEEK	EZ BAZKIDEEK
18,40 €	29,90 €

Ostiraletan, bazkaria ez dago prezioaren barnean.





ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA	LUDOCLUBAK	LEKU KOPURUA		
		EKAINAREN 26TIK 30ERA	UZTAILAREN 3TIK 7RA	UZTAILAREN 10ETIK 14RA
01054	ARANA	25	-	-
01055	IBAIONDO	25	-	-
01056		-	25	-
01057	IPARRALDE	-	-	25
01058	SALBURUA	-	25	-
01059		-	-	25

ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 16:00etara ostiraletan (txangoak egingo dira eta).

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Ezagutzeko jolasak eta apainketa	Esperimentuak eta trebetasun zirkuitua	Txangoa parkera eta ur jolasak	Sukaldaritza lantegia eta lehiaketa	Txangoa

OHARRA: jarduerak aldaketaren bat izan dezakete antolatzaileen beharren arabera.

PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: gehienez 150.

GARRAIOA: udalekuek garraio zerbitzua izango dute ostiraleko txangoetarako. Topalekua dagokion gizarte etxea izango da.

HIZKUNTZA: euskara.

Ludoklub zerbitzuak familiei gutun bat bidaliko die **jarduera programaren** berri eta jarduera horietako behar diren gauzen berri emateko.




ANTOLATZAILEA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ludoklub Sarea.

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila.

Telefonoa: 010 edo 945 16 11 00

Web: www.vitoria-gasteiz.org



Jarduera Nautikoen Campusa

» HARTZAILEAK

2002tik 2010era arte
jaioak.

» BALIOAK

Parte hartzea,
iraunkortasuna,
elkartasuna eta sormena.

» HELBURUAK

- Kiroletan aritzeko eta bizikidetzat lantzeko espazio bat sortzea, bestelako natur ingurune batean.
- Ur jardueretan aritzeko aukera ematea, beharrezko bitarteko tekniko eta materialak eskainiz.
- Ur jarduerari buruzko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea.

Udan, Kirol Zerbitzuak hainbat kirol jarduera eskaintzen ditu Uribarri-Ganboako urtegian, natur ingurunean dugun leku esanguratsuenetako batez gozatzeko.


Zenbait jarduera nautiko proposatzen dira, bai eta hainbat gairekin lotutako lantegiak ere: ingurumena, ingeles praktika edota denbora librean egiteko jarduerak igerilekuan eta jolas gunean.

Astelehenetik ostiralera, 8 orduz, jarduera nautikoak praktikatu dira, hasiberriek oinarriko ezagupenak lor ditzaten, eta lehenago ibilitakoek teknika hobetu dezaten.

Goizez jarduera nautikoak egiteaz gain, kirolen eskola teoriko eta praktikoak emango dira taldeka; eta, arratsaldean, bazkal-dutakoan igeriketa-gunera joateko, kirolak egiteko eta abarretarako denbora izango da.

Antolatzaileak hala beharrezko materiala nola gaitutako begiraleak eta instalazio egokiak eskaintzen ditu, bizipen berriz jositako astea igaro dezazun, naturarekin bat.

Egiten diren jarduerak ondorengoak dira: bela (optimist itsasontzi indibidualak eta ontzi lapur kolektiboa), windsurfa (2002tik 2005era arte jaioentzat bakarrik), piraguismoa eta stand up paddleboarda.





ANTOLAMENDUA

LEKUA: Uribarri-Ganboako urtegia.

EGUTEGIA:

KODEA	Astelehenetik ostiralera (ekainaren 26tik uztailaren 21era arte)
01060	Lehenengo txanda: ekainaren 26tik 30era arte (7-11 urte)
01061	Bigarren txanda: uztailaren 3tik 7ra arte (7-11 urte)
01062	Hirugarren txanda: uztailaren 10etik 14ra arte (12-15 urte)
01063	Laugarren txanda: uztailaren 17tik 21era arte (7-11 urte)

ORDUTEGIA: 09:30 - 17:30 (irteera- Gasteizera iristea)

Jardueren ordutegia: goizeko 10:15etik 13:15era eta arratsaldeko 14:30etik 17:00etara.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 184 (gutxienez 15 eta gehienez 48 txanda bakoitzean). **Uztailaren 10etik 14ra arteko astea: gehienez 40.**

GARRAIOA: garraioa barne. 9:30ean **Mendizorrotzako aparkalekutik** (Beti Jai frontoien aurrean) irten, eta 17:30ean leku berbera helduko dira.

HIZKUNTZA: ele bietan.

MATERIALAK: antolatzaileek jarriko dute jardueretarako behar den material teknikoa espezialitate guztietan.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Uretako jarduerak egiteko **EZINBESTEKOA DA IGERI EGITEN JAKITEA.**

PREZIOA:

BAZKIDEEK	EZ BAZKIDEEK
96,00 €	143,00 €

JANGELA ZERBITZUA: prezioaren barnean dago.

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK: hezkuntza-premia bereziak (hpb) dituzten haurrek izena emateko, Kirol Zerbitzuarekin jarri beharko dute harremanetan tutoreek, 945 16 15 55 telefonoan, kirol jarduera haurraren ezaugarrietara egokitu behar den baloratzeko.



ANTOLATZAILEA

Udaleko Kirolaren Zerbitzua.
Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo 945 16 11 00

Web: www.vitoria-gasteiz.org



» HARTZAILEAK

2000 eta 2004 bitartean
jaiotako neska-mutilak.

» BALIOAK

Bizi-kalitatea eta
Parte-hartzea.

» HELBURUAK

- Aisialdirako aukera eskaintzea 13 eta 17 urte bitarteko gazteei.
- Adin horietako gazteen arteko harremanak sustatzea, errespetuzko ohiturak eta berdinen arteko bizikidetzaren bereziki landuz.
- Aisialdian eta denbora librean heziketarekin eta jolasarekin lotutako alderdiak sustatzea.

Kanpamentuak Hondartzan

Egun batzuk itsasertzean eta aire librean bizitzea kanpaldi hauen alderdirik erakargarriena da. Hondartzaz gozatzeko aukeraz gain, kanpalekutik gertu dauden hiri eta gune interesgarriak ezagutzeko aukera ere izango da.


Ostatua kanpinean egingo da eta parte hartzaileek kanpin dendak montatzen aritu beharko dute, baita guztionak diren lanetan ere. Horrela antolatzeak eta bizitzeak elkarren arteko harremanak, errespetua eta bizikidetzaren indartzen laguntzen du.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA: 290,00 €.

2016-2017 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka eskuratu duenak (2016ko irailaren 28aren Agindua), ezarritako prezioaren % 50eko hobaria izango du (ez dira aintzat hartuko *Testuliburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren barruko laguntzak*). Formalizazioaren fasean (maiatzaren 5etik 12ra), ez da egoera horren egiaztagiririk erakutsi beharrik izango, eskaera egiteko fasea amaitzen denean (apirilaren 3tik 21era) Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko baitio udalari eskaera egin dutenek beka duten edo ez.

Parte hartzaileek NANA, Osasun Txartela eta guraso edo tutoreen baimena (Xtraclubeko modelo; deskargatu www.vitoria-gasteiz.org/xtraclub web-orrian edo eskatu OMIJ, gizarte etxeetan eta kirol instalazioetan).





Kanpamentuetako parte hartzaileen portaera Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudiaren menpe egongo da. Araudi honetan bildutako arauak ez betetzeak zigorra ezartzea ekarri ahal izango du.

Bi aukera hartu ahalko dira baina **batean bakarrik parte hartu**.

ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA	LEKUA	TOKI KOPURUA	DATAK
01064	CUNIT 1 (Tarragona)	50	Ekainaren 27tik uztailearen 6ra
01065	CUNIT 2 (Tarragona)	50	Uztailearen 6tik 15era

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 100.

GARRAIOA: autobusa eta garraio publikoa.

HIZKUNTZA: gaztelania eta euskara.

Kanpaldien ezaugarri eta beharrei buruz informatzeko Pilar gizarte etxean **bilera** egingo da, hurrengo data eta ordutegietan:

- **1. taldea: ekainak 14**, asteazkena, 19:00etan.
- **2. taldea: ekainak 14**, asteazkena, 20:00etan.



ANTOLATZAILEA

Gazteria Zerbitzua.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila.

Telefonoa: 010 edo
945 16 13 30

Gazteen Argibideetarako
Udal Bulegoa.

Web:

www.vitoria-gasteiz.org/xtraclub
www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza



Udaband!

Udako Musika Campusa

» HARTZAILEAK

1997 eta 2006 bitartean
jaioak.

» BALIOAK

Sozializazioa,
Berdintasuna, Sormena
eta Inklusioa.

» HELBURUAK

- Musika sortu eta sentitzea.
- Norberaren prestakuntzarekin jarraitzea.
- Norberaren prestakuntza taldeko lanarekin osatzea.
- Jendaurrean eskainiko dugun errepertorioa lantzea.

Luis Aramburu Musika Eskolako

Udaband! udako musika campusean

parte hartzera animatzen zaituztegu. Ekintzatik hurbilduko gara musikara, taldeko ikaskuntza tarteko. Ikasturtean zehar musika tresna bat jotzen ikasteak eskatzen duen lan pertsonala osatzeko metodologia eskaini nahi dugu.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA: 250 euros. Prezioak barne hartzen ditu hamaiketako, bazkaria eta askaria.

IKASLEEN PROFILA: ikasleek musika-eskolako II.4 maila edo kontserbatorioko oinarrizko maila izan behar dute.

Eskabidea egitean aurkeztu behar da musika-eskolan edo kontserbatorioan egindako ikasketen ziurtagiria. Ziurtagiri hau, Herritaren Arretarako bulegoan entrega daiteke edo eplatas@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoen bidez apirilaren 21ean baino lehen.

ESPEZIALITATEAK:

- **AHOTSA** (2 gehienez)
- **HAIZE-INSTRUMENTUAK, EGURRA:** flauta, saxoa, klarineta, oboea eta fagota
- **HAIZE-INSTRUMENTUAK, METALA:** tronpeta eta tronboia
- **ARLO ERRITMIKOA:** pianoa, baxua, gitarra eta bateria (gehienez hiru espezialitate bakoitzeko)

ALDEZ AURREKO LANA: lan egiteko behar diren materialak ekainaren 19tik aurrera jasoko dituzte parte hartzaileek.





ANTOLAMENDUA

LEKUA ETA EGUTEGIA:

KODEA	LEKUA	EGUNAK
01066	Luis Aramburu Udal Musika Eskola	Uztailaren 3tik 8ra

ORDUTEGIA: 10:00 - 18:00 bazkaria barne.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 50 pertsona (gutxiago badira ez da campusa egingo)

HIZKUNTZA: ele bietan.

JARDUERAK: irakasle adituak arduratuko dira arlokako entseguetz eta orokorrez. Banakako indartze saioak ere ezarriko dira, behar izanez gero.

Aisialdian begirale adituak arduratuko dira jarduera ludikoez.

Entzunaldiak eta maisu eskolak programatu dira.

Kontzertua eskainiko da campuseko jarduereri amaiera emateko.



ANTOLATZAILEA

Luis Aramburu Udal Musika Eskola.

Telefona: 010 edo
945 16 11 00

Web:

www.vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz.org/luisaramburu

» HARTZAILEAK

2010era arte jaiok (2017ko maiatzaren azken astean plazaratuko den esku-orria kontsultatu).

» HELBURUAK

- Kiroletan aritzeko eta bizikidetza lantzeko espazio bat sortzea, bestelako natur ingurune batean.
- Ur jardueretan aritzeko aukera ematea, beharrezko bitarteko tekniko eta materialak eskainiz.
- Ur jardueri buruzko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea.

Jarduera Nautikoak

Hastapen Ikastaroak

Hastapen ikastaroak, arratsaldez, hainbat ur kirol buruzkoak: bela, windsurfa, piraguismoa.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

PREZIOA: jardueraren arabera.

Uretako jarduerak egiteko **EZINBESTEKO DA IGERI EGITEN JAKITEA.**

Jarduera guztiak **banaka** egiten dira. Banako praktika horrek beharbada ekarriko du **hezkuntza premia bereziak dituzten haurrentzat moldatu beharra**. Horregatik, erabiltzaile horiek Kirol Zerbitzuarekin jarri beharko dute harremanetan, 945 16 15 55 telefonoan, behar hori baloratzeko.

Izena emateko epea maiatzaren 29an hasiko da: gizarte etxeetan, udalaren kirol instalazioetan, Udalaren Web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org) zein herritarrei laguntzeko 010 telefonoaren bitartez egin ahalko da.

Ikastaroa hasiko den egunera arte eman ahalko da izena (beti ere leku librerik bada).





ANTOLAMENDUA

LEKUA: Uribarri-Ganboako urtegia.

EGUTEGIA: astekoak – astelehenetik ostiralera (ekainaren 26tik irailaren 1era arte), jardueraren arabera.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 381.

ORDUTEGIA: arratsaldeko ordutegia (jardueraren arabera).

GARRAIOA: garraiorik gabe.

HIZKUNTZA: gaztelania (haurrentzako bela, ele bietan).

MATERIALAK: antolatzaileek jarriko dute jardueretarako behar den material teknikoa espezialitate guztietan.

OHARRA: ikastaro bakoitzeko informazio zehatza (adina, egutegia...) 2017ko maiatzean plazaratuko den esku-orrian **kontsultatu** ahalko da.



ANTOLATZAILEA

Udaleko Kirolaren Zerbitzua.
Kultura, Hezkuntza eta
Kirolaren Saila.

Telefonoa: 010 edo
945 16 11 00

Web: www.vitoria-gasteiz.org/kirolak

Guraso Elkarteek antolatutako opor jarduerak

2016an Vitoria-Gasteizko ikastetxe publiko eta hitzartuetako **25 guraso elkarte** antolatu zituzten opor programak, Udalaren diru-laguntzarekin. Iazko udan, Haur eta Lehen Hezkuntzako **3.556 ikaslek** hartu zuten parte jarduera horietan.

Ikastetxeetan bertan garatzen direnez, ikasleek ikasturte osoan ibili diren inguru fisiko eta sozial berean jarraitzeko abantaila eskaintzen diete familiei, eta bereziki egokiak dira ume txikienentzat.

**INFORMA ZAITEZ ETA LAGUN
IEZAIOSU ZEURE IKASTETXEKO
GURASO ELKARTEARI!**





Guraso Elkarteentzako udal baliabideak

Udal sailek garatzen dituzten opor programez gain, ikasleen gurasoen elkarteek ere eskola oporretan aisialdi eta denbora librerako jarduerak antolatzen parte har dezaten bultzatu nahi du Udalak. Horretarako, hainbat baliabide eskaintzen dizkie.

Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako guraso elkarteek udal baliabide hauek balia ditzakete 2017ko udan opor jarduerak antolatu nahi badituzte:

Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren deialdia, opor programak antolatzen dituzten guraso elkartei DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO. 2017ko ekainaren 26tik irailaren 1era bitartereko opor programen antolaketan eta kudeaketan guraso elkarteek parte har dezaten bultzatzea du xede deialdi horrek.

www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza

Argibide eta harremanetarako: 945 161 536

Gizarte etxeetako zein udalaren kirol instalazioetako ARETOAK ERABILTZEKO aukera, epe horretan jarduerak egiteko.

[Udalaren zerbitzu eta ekipamendu sareak](#)

Argibide eta harremanetarako: 945 161 100

EUSKARA ZERBITZUAREN AHOLKULARITZA

- Guraso elkarteentzako aholkuak opor jardueretako proiektuetan hizkuntzaren erabilera zein izango den zehazterakoan.
- Prestakuntza saioa programak garatzen dituzten arduradunekin edo begiraleekin, euskararen erabilera sustatzeko estrategiei buruz.

Argibide eta harremanetarako: 945 161 588

avadillo@vitoria-gasteiz.org



2017ko Udalaren Opor Programa

JAIOTZA-URTEA	JARDUERA	EGUTEGIA	TOKI KOPURUA	FASEAK	LEKU LIBREEN FASEA	ORR.
2011 - 2013	JOLAS-TXOKOAK	uztailak 3 - 14	260	ESKAERA apirilak 3 - 21	maiatzak 18 - ekainak 4	8
		uztailak 17 - 28	120			
2013 - 2014	UDAKO TXIKILUDOTEKA	uztailak 3 - 7	15			10
2008 - 2012	UDAKO LUDOTEKAK	ekainak 26 - 30	180			
		uztailak 3 - 7	180			
		uztailak 10 - 14	60			
2005 - 2012	UDALEKU MUSIKALAK !música, BAI! 2017	ekainak 26 - uztailak 7	240			12
		uztailak 10 - 21	240			
2008 - 2010	UDALEKU IREKIAK	uztailak 3 - 14	190			14
		uztailak 17 - 28	120			
2005 - 2007	INGURUMEN UDALEKUAK	uztailak 3 - 14	80			16
		uztailak 17 - 28	40			
2005 - 2010	GREEN SUMMER CAMP	uztailak 3 - 14	50			18
		uztailak 17- 31	50			
2004- 2007	ABENTURA-UDALEKUA	uztailak 10 - 14	45			20
		uztailak 17 - 21	45			
2004- 2007	UDAKO TXOKOCLUBA	ekainak 26 - 30	50			22
		uztailak 3 - 7	50			
		uztailak 10 - 14	50			
2002 - 2010	JARDUERA NAUTIKOEN CAMPUSA	ekainak 26 - 30	48	24		
		uztailak 3- 7	48			
		uztaila 10 - 14	40			
2000 - 2004	KANPAMENTUAK HONDARTZAN	uztailak 17 - 21	48	26		
		ekainak 27 - uztailak 6	50			
1997 - 2006	UDABAND! UDAKO MUSIKA CAMPUSA	uztailak 6 - 15	50	28		
		uztailak 3 - 8	50			
2010era arte jaiotako pertsonak	JARDUERA NAUTIKOAK: HASTAPEN IKASTAROAK	ekainak 26 - irailaren 1 (asteko ikastaroak)	Jardueraren arabera	IZEN-EMATE ZUZENA maiatzaren 29tik lekuak bete arte	30	